

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza aldatzeari

2019ko abenduaren 4ko ALHAOn (140. zk.) iragarkia argitaratu ondorengo jendaurreko arauzko epean erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onespena ematen zaio trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza aldatzeko espedienteari. Horiek horrela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, ordenantzaren testu osoa argitaratzen da:

II. eranskina – Hobariak

- a) Ehuneko 25eko murrizketa zerga kuotaren gainean familia ugariaren titularra izanez gero.
- b) Ehuneko 90eko murrizketa zerga kuotaren gainean ibilgailu historikoen titularrentzat.

Ondorio horietarako, ibilgailu historikoak arautzen dituen araudia aplikatuko da, alegia, 920/2017 Errege Dekretua. Horrenbestez, ibilgailu historikotzat hartuko dira baldintza hauek betetzen dituztenak:

- Duela gutxienez 30 urte fabrikatu edo lehen aldiz matrikulatu zirenak.
- Jada fabrikatzen ez den mota batekoak direnak.
- Jatorrizko egoeran daudenak, eta ezaugarri teknikoetan edo osagai nagusietan (motorra, balaztak, direkzioa, esekidura edo karrozeria) funtsezko aldaketarik izan ez dutenak.

- c) Ehuneko 40ko murrizketa zerga kuotaren gainean ibilgailua elektrikoa izanez gero.

d) Ehuneko 20ko murrizketa zerga kuotaren gainean ibilgailuak propulzio metodo hibridoa erabiltzen badu, hau da, energia elektrikoa eta erregaia bateratzen baditu.

e) Ehuneko 20ko murrizketa zerga kuotaren gainean ibilgailuak kilometroko 120 gramo karbono dioxido (CO₂) baino gutxiago isurtzen badu. Hobari hori gehienez bi urtez aplikatuko da, ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen den egunetik aurrera. Hobaria jasotzeko, interesdunek eskatu egin behar dute berariaz. Eskabidearekin batera, ibilgailuaren azterketa teknikoko txartela aurkeztu behar dute, bai eta eraginkortasun energetikoaren etiketa ere, baldin eta ibilgailua ez bada azaltzen "Erregai-kontsumoari eta CO₂ isuriei buruzko gida" izenekoan. Energia dibertsifikatzeko eta aurrezteko institutuak (IDAE) argitaratzen du gida hori.

Oro har, hobariak eskaera egin den urtearen hurrengotik aurrera izango ditu ondorioak, eta ez du atzeraeraginik izango.

Zerga honen hobariaren onuradun izan ahal izateko, eskatzaileak egunean izan behar ditu Udalarekiko zerga betebeharrak."

Guztiek jakin dezaten eta ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Zalduondo, 2020ko urtarrilaren 13a

Alkatea

GUSTAVO FERNÁNDEZ VILLATE